

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak herri zaharraren berrurbanizazioa nabarmendu du Sarrigurenen, hirigintza sozialaren eta iraunkorraren adibide gisa

Exekutiboaren buruak eta Alfonso Etxeberria alkateak eliza zaharra inauguratu dute; hots, hiri espazio hori berreskuratzeko, birgaitzeko eta birsortzeko Nasuvinsak egindako planaren barruan zaharberritua izan dena, Eguesibarren epizentroa

Ostirala, 2018.eko urtarrilak 12

Nafarroako Gobernuo Uxue Barkos Lehendakariak, Sarrigurengo eliza zaharra berriz irekitzeko gaur egindako ekitaldian, inguratzen duen ingurune osoaren berrurbanizazioa nabarmendu du, Foru Exekutiboaren bitartez bultzatzen ari den hirigintza sozial eta iraunkorraren adibidetariko bat gisa. "Duela ia



Barkos Lehendakaria bere hitzaldian.

pare bat urte etxeak ia erortzen ari ziren herri honetan, eta, orain, Eguesibarko epizentro kulturala bihurtzea hirigintzaren garaipena da berez", azpimarratu du

Uxue Barkos izan da gaur goizean Sarrigurengo Santa Engrazia eliza zaharra inauguratzeko ekitaldiaren burua, eta harekin batera egon dira Alfonso Etxeberria, herriko alkatea, eta Nasuvinsako kudeatzailea, José M^a Aierdi. XII. mendeko eliza txikia desakralizatua izan zen bere garaian, eta hondamendi-egoeran aurkitzen zen azken hamarkadetan. Orain, Eguesibarko Udalak areto noble, ekitaldien areto eta kirol-jardueretarako zentro bezala erabiliko du, birgaitu eta egokitu ondoren.

Eliza hau berriz irekitzearekin, amaiera eman zaio Sarrigurengo herri zaharreko eremu osoa berreskuratzeko, birgaitzeko eta birsortzeko hirigintza-planari; Nasuvinsa sozietateak abian jarri zuen 2015eko urritik aurrera. Besteak beste, Kontzeju zaharreko harrizko hiru leinu-etxe, zutik geratzen zirenak, berreskuratu eta sendotu dira; eliza zaharra berritu eta egokitu da —eraiki guztiak Nasuvinsak utziak Eguesibarko Udalarari, erabilera sozial eta kulturaletarako hornidura gisa—; eta ingurunea berrurbanizatu da, bizikidetzako hiri-espazio moduan

Letargiatik ateratako proiektua

Ekitaldiaren amaieran eskainitako hitzaldian, Foru Exekutiboko Lehendakariak honela nabarmendu du: Nafarroako Gobernuak eta Eguesibarko Udalak azken urte pare hauetan izan duten "lankidetzaz estua eta emankorra", "Sarrigurengo herri zaharra berrurbanizatzeko proiektua letargiatik ateratzeko, hamar urtetik gora abandonatuta eta hondamendi-egoeran aurkitzen baitzen, inguruan eraikuntza berriak eraikitzen ari ziren bitartean".

Halaber, Barkosek Eguesibar aipatu du, gaur egun Nafarroako hirugarren udalerrria biztanleriaren aldetik, "herri emergente eta ehun sozial eta kultural oso bizia duen herri" bezala, eta ondorengo azpimarratu du: "herri zaharra berreskuratzea eta Sarrigurengo ekohiriaren diseinu guztia, oro har, hirigintza sozial eta iraunkorraren adibiderik onenak dira, etxebizitzarako eskubidea ez ezik, gure herrien bizigarritasuna ere bermatzera zuzenduak"; izan ere, "hiriak bizikidetzarako, bizimodurako, kulturarako eta jarduerarako hiri-espazio bezala sortzen laguntzen dute, eta ez soilik lur azalera hotzetan zabaltzen diren lotarako urbanizazio huts bezala, askotan espekulazio-itxaropenen asmoekin sortuak".

Foru Exekutiboko buruak, baita ere, goraiatu du Eguesibarreko Udalarekin egindako lankidetzari esker, azkenik 700.000 euroko zorra kitatzea lortu dela. Zor hori Gobernuak udalerriarekin hartu zuen Sarrigurengo ekohiria hedatzeko bere garaian hirigintza-aprobetxamenduak lagatzeagatik, eta hamar urtetik gora zeramatzan artatu gabe

Eguesibarreko alkatea den Alfonso Etxeberriak ere Nafarroako Gobernuari eskerrak eman dizkio erabilera askotarako erabiliko den gune hori birgaitzeagatik. Etxeberriak gogoratu du Sarrigurenek 10 biztanle zituela 2002an, eta, egun, 15.000 izatera iritsi dela (21.000 Eguesibarrek); beraz, beharrezkoa zen elkarbizitzarako eta bizitzarako honako hau bezalako espazio publiko berriak izatea, haran osoak erabiltzeko eta gozatzeko



La Presidenta Barkos durante su discurso.

Sarrigurengo eliza zaharrean egin den lehen ekitaldi publikoan berrogeita hamar bat pertsona bildu dira, eta, bertan, kuarteto musikalaren errezitaldi laburra eskaini da, tokiko artisten obra grafikoaren erakusketa ireki da, eta ondare ukiezinari buruzko bideoa eman da, adineko pertsonen kontzejuaren historiaren gainean eskainitako testigantzekin. Ondoren, Barkos Lehendakariak eta Etxeberria alkateak oroigarritzko plaka bistaratu dute.

Ekitaldian parte hartu duten agintariek, halaber, eliza zahararen ondoan, Erdi Aroko nekropoliko hondakin arkeologikoak bisitatu dituzte, Sarrigurengo kontzeju zaharrak gordetzen zituenak, XII. eta XVIII. mende artean lurperatutako berrogeita hamar bat hondakinekin. Eredu hori berriz urbanizatzen hasi aurreko lanetan egindako indusketan aurkitu zuten.